


Argia

Kolore tenperatura, Filtroak,
Balantzea

Argiaren Definizioa

- Intentsitate eta uhin luzera aldakorrek dituen radiazio elektomagnetiko bat da.
- Uhin luzera bakoitzari kolore konkretu bat dagokio. Kolore ezberdinen uhin luzera 370 eta 780 nanometro (nm) bitartekoa da.



Argi Motak

- Argi naturala: eguzki argian jatorria duena da.
- Argi artifiziala: gizakiak sortutakoari deritza, kandela batetik hasi eta potentzia handiko fokoetara bitartekoa.

Argiaren Ezaugarriak

- Argitasun eta kolore inpresioa eragiten du.
- Argi baldintza desberdinetan argitasun eta kolore inpresio desberdinak izango ditugu.
- Hori horrela izatearen arrazoi bat, argi iturri bakoitzak bere **KOLORE TENPERATURA** duelako da.

Kolore Temperatura

- Termokolorimetroaren bitartez jakin daiteke argi iturri bakoitzaren kolore temperatura.
- Gradu Kelvinetan (K) neurtzen da.



Kolore Temperatura

- Adibide batzuk:
- Zeru urdin argia: 10000K
- Zeru urdina hodeiekin: 7000K
- Eguzki izpiak: 6000K
- Gure geletako fluoreszenteak: 4000K
- Ilargia: 3000K
- Tungstenoko bonbila: 3200K

Kamera Egokitzen

- Gure begiak automatikoki egokitzen dira dauden argi baldintzetara.
- Kamerari aldiz esan egin behar zaio. Horretarako bi ajuste dituzte:
 - Filtroak
 - Zuri balantzea

Filtroak

- Filtroak: kamera baldintza orokorretara egokitzeko dira. Kamerak hiru filtro izaten dituzte:
 - 1. 3200K ajustatuta argi artifizialarekin ari garenerako
 - 2. 5600K+ ND
 - 3. 5600K ajustatuta argi naturalarekin ari garenerako.
- (Gogoratu, zenbait argi iturri artifizial erabiltzen ari garean komeni izaten dela argi naturalerako filtroa erabiltzea, gure geletako fluoreszenteekin esaterako.)

Zuri Balantzea

- Behin filtro egokia jarrita, kamera argi baldintza zehatzetara egokitzeko egiten da.
- Folio zuri bat kamera aurrean jarriz, *white balance* sakatu. Esaten ari garena zera da: hau da zuria egoera honetan, beraz zeuk ajustatu bestelako kolore guztiak.
- Zuriarengan egiten da, zuria delako kolore guztien nahasketa proportzio berdinean.

Kamera “Engainatzen”

- Zuri balantzea egiterakoan folio zuri bat beharrean, beste kolore bat jarriko bagenu, kamerari, aukeratutakoa, zuria dela esaten egongo ginakeenez, beste kolore guztiak horren arabera ajustatuko lituzke.
- Kolore urdindun zerbait jarriko bagenu, lortuko genukeen irudiak ukitu gorri bat izango luke; gorria balitz, ukitu urdina.
- Askotan erabiltzen da kamera “engainatzeko” modu hau.



Kaarela
Aula

1.1





EUSKAL

HERRIO

SITATEA

- http://omarnarpier.com/Camara%20de%20TV/Maintaining%20Video%20Quality_files/wfm2.gif

Esteka interesgarria

- <http://www.cybercollege.com/span/tvp016.htm>